



HIRU URTETIK BEHERAKO HAURREN ESKOLAK ETA HAUEI ZUZENDUTAKO ASISTENTZIA- ETA HEZKUNTZA-ARRETA KUDEATZEKO HAURRESKOLAK PARTZUERGOAREN ERAKETARAKO EUSKO JAURLARITZAREN ETA EIBARKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA.

Eibarren, 2005eko abenduaren 19an.

BILDUTAKOAK

BATETIK, JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS JAUN TXIT GORENA ETA GONZALO SAENZ DE SAMANIEGO BERGANZO JAUN TXIT GORENA.

Eta bestetik, IÑAKI ARRIOLA LÓPEZ jauna.

BERTARATU DIRA

Lehenengoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren izenean eta ordezkapenean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburu eta Nekazaritza eta Arrantza sailburu gisa, hurrenez hurren.

Eta bigarrena, Eibarko Udalaren izenean eta ordezkapenean, Alkate Udalburu gisa, hurrenez hurren.

Bi aldeek, administrazio arteko harreman guztietan nagusi izan behar duten koordinazio, lankidetzeta eta bata bestearekiko errespetuko printzipioek osatzen duten markoaren barruan, honako HITZARMEN hau sinatzeko behar den lege-ahalmena onartzen diote elkarri, eta horretarako, bada, honakoa,

ADIERAZI DUTE

I.- Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak onartutako Euskal Herriko Autonomia Estatutuko 16. artikulua araberak, eta Konstituzioko 27. artikulua eta hau garatzen duten Lege Organikoen, Konstituzioko 149.1.30 artikulua Estatuari ematen dizkion ahalmenen eta hori bete eta bermatzeko behar den ikuskapen apartaren kaltetan gabe, hezkuntza, bere osotasunean eta maila eta gradu, modalitate eta espezialitate guztietan, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren eskumenekoa dela.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio sailak sortu, deuseztatu eta aldatzeko eta hauei dagozkien funtzioak eta jarduera-eremuak ezartzeko Lehendakariaren uztailaren 16ko 7/2001 Dekretuaren, irailaren 17ko Lehendakariaren 19/2001 Dekretuak aldatutakoaren, araberak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarenak dira eskumen horiek.

Bestetik, apirilaren 8ko 10/1998 Legeak, Landa Ingurunearen Garapenari buruzkoak, bere 3.4 artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoko landa-ingurunearen garapenerako, hezkuntza- eta kultura-arloko politikaren helburu sektorial gisa, ondokoak



hartzen ditu: hezkuntzako eskaintza landa-inguruneko biztanleriarengana behar bezala iristeko modua bermatzea, biztanleria horren berezitasunak kontuan hartzen dituzten irizpide eta baremoekin, hezkuntzako eskaintza landa-ingurunera gero eta hurbilagozten ahaleginduz, batez ere herrigunerik aldendu eta txikienentzako derrigorrezko hezkuntzari dagokionez; hezkuntzaren kalitatea hobetzea, euskal landa-ingurunearen berezitasunekin bat datozen hezkuntza eredu, teknika eta jarraibide berritzaileak garatuz, landa-inguruneko biztanleriari bere ingurua ezagutu eta baloratzeko aukera ematen dioten curriculumak diseinatu, eta zonalde horietako emakume eta gazteen prestakuntza eta trebakuntza lehentasunez bultzatuz; hezkuntza, kultur eta kirol ekipamenduen artikulazio orokorra erraztea, ekipamenduon balioaniztasuna eta funtzioaniztasuna sustatuz, eta egun dauden desorekak zuzenduz. Helburu hauek bete eta gauzatzeari Nekazaritza eta Arrantza Sailak du ardura, lehen aipatutako 7/2001 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

II.- Toki Araubidearen Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak bere 25.2. artikuluko k) eta n) hizkietan xedatzen duenaren arabera, Udalerrien esku dagoela gizarte-zerbitzuak ematea eta hezkuntza eta lankidetzaren arloko programazioan hezkuntza-administrazioarekin batera aritzea, ikastetxe publikoak sortu, eraiki eta mantenduz, kudeaketa-organoetan esku hartuz eta derrigorrezko eskolatzea betetzen dela zainduz.

III.- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 9. eta 6. artikuluek, Toki Araubidearen Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 57. eta 87. artikuluek, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen Testu Bateratuaren 110.ak eta 1955eko ekainaren 17ko Dekretuak onartutako Toki Erakundearen Zerbitzu Arautegiaren 37.ak eta ondorengoek, jasotzen dutela hezkuntzako eta tokiko administrazioen arteko lankidetzaren eta elkarlanaren printzipioa dela, bien arteko harremanak zuzentzen dituen printzipio nagusienetako bat; eta baita, administrazio bien arteko partzuergoak bideratzen dituela, biek duten interes berak lortzeko sina daitezkeen lankidetzaren-hitzarmenak kudeatzeko tresnak izan daitezkeen. Printzipio horiek jasota daude egon, orobat, Hezkuntzarako Eskubidea Arautzeko uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren bigarren xedapen gehigarrian eta, otsailaren 19ko Euskal Eskola Publikoaren 1/1993 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarrian.

IV.- Hezkuntzaren Kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoaren I. Tituluak, Hezkuntza Sistemaren egitura, eskola-irakaskuntzaren maila eta etapei dagokienez, berrantolatu egiten duela, eta eskolaurreko hezkuntza duen izaera bikoitzagatik bereiztu egiten duela, hau da, hezkuntza-izaera eta lehen haurtzaroaren arreta eta zaintza, familien eskariari erantzuteko eta horiek dituzten beharrei aurre egiteko adina plaza-eskaintza bermatuz. Hori horrela, aipatutako Lege Organikoaren 7. artikulua honela egituratzen du hezkuntza-sistema: eskolaurreko hezkuntza, eskola-irakaskuntza eta unibertsitateko irakaskuntza; eskolaurreko hezkuntza, hezkuntza- eta asistentzia-izaera izanik berriazko erregulazioa duen hezkuntza-etapa gisa definitzen duela.

10/2002 Lege Organikoaren 10. artikulua adierazten du eskolaurreko hezkuntzaren helburua lehen haurtzaroaren hezkuntza- eta asistentzia-arreta dela eta hiru urtetik beherako haurrei dagoela zuzendua. Gobernuak etapa honi egokitzen dizkion hezkuntza-alderdiei buruzko oinarriko araudiaren arabera, Autonomia Erkidegoei dagokien hezkuntza-etapa honetako haurrei zuzendutako arreta antolatzea eta hori

eskaintzera bideratutako ikastetxe eta erakundeek bete beharreko baldintzak ezartzea. Halaber, egoki iritzitako gainbegiratze eta kontroleko prozedurak ere ezarriko dituzte. Aipatu 10. artikuluko horrek honela darrai: Eskolaurreko Hezkuntza, adin honetako haurrei arreta aproposa emateko behar bezala gaitutako profesionalek emango dute eta gurasoei dagokienez boluntarioa izango da. Administrazio eskudunek familietan sortutako beharrei erantzunon diete eta eskaria asebetetzeko adina plazen eskaintza koordinatuko. Eskolaurreko Hezkuntzan ondokoak landuko dira: mugimenduaren garapena, gorputzaren kontrola, komunikazioaren eta hizkuntzaren lehen agerpenak, elkarbizitzaren eta gizarte-harremanen funtsezko jarraibideak eta ingurune hurbila ezagutzea.

Behin eta berriz aipatutako Lege Organiko horren lehen xedapen gehigarriak, legea ezartzeko egutegiari dagokionak, zera ezartzen du, Gobernuak, Autonomia Erkidegoei kontsultatu ondoren, Legea aplikatzeko egutegia onartuko duela, eta egutegi horrek indarren jarri eta hurrengo bost urtetarako balioko duela.


Otsailaren 19ko Euskal Eskola Publikoaren 1/1993 Legeak, 9. artikuluan bigarren atalean ezartzen du hezkuntza-administrazioak, hainbat administrazio eta gizarte-agenterekin elkarlanean, eskatzen dutenen zero urtetik aurrerako eskolatzeari arian-arian ezarriko du, hizkuntza-sektoreei haurrak eskolatzeko aukerak jakinaraziz. Dena dela, ezartze-prozesuan lehenetsuna izango dute gizarte- eta ekonomia-maila apalenerako zonek eta, oro har, hezkuntzako behar bereziak edo hizkuntzako beharrik dituzten ikasleek.

Landa-inguruneari dagokionez, Landa Ingurunearen Garapeneri buruzko apirilaren 8ko 10/1998 Legeak 3.4. artikuluan ezartzen dituela Euskal Autonomia Erkidegoko landa-ingurunearen garapeneraren gaineko politikaren hezkuntza-mailako helburuak. Horien artean honakoa dago: hezkuntza-eskaintza landa-ingurune biziaren berrantolaketa behar bezala iristeko modua bermatzea, biztanleriaren berezitasunak kontutan hartzen dituzten irizpide eta barmoenkin, hezkuntza-eskaintza landa-ingurunerako gero eta hurbilagotzen ahaleginduz.

V.- 2002ko otsailaren 8an, Eusko Legebiltzarrak 0-3 urte bitarteko zikloaren ezarpenari buruzko ez Legezko Proposamena onetsi zuela; ez Legezko Proposamen horren arabera, 0-3 urte bitarteko zikloaren izaera nagusia hezitzailea eta unitarioa da, LOGSEn eta Euskal Eskola Publikoaren Legean zehaztuta dagoen bezala, eta gainera, Eusko Jaurlaritzari eskatzen zaio Haur Hezkuntzaren lehenengo zikloaren arduraren bere gain hartzeko, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari dagokio hezkuntza-eskaintzaren plangintza eta koordinazioa burutzea eta etorkizunean berari kudeatzea, eta hori guztia, behin-behinekoz, ziklo honetan eskumenik duten Sail eta Erakunde desberdinekin elkarlanean egingo da.

Euskal Autonomia Erkidegoan 0-3 urte bitarteko haurrei tipologia eta baldintza antzeko zentroetan eskaintzen zaie hezkuntza-arreta: udalaren haur-eskola, haurtzaindegia pribatuak, irabazi-asmorik gabeko erakundeen mendeko haurtzaindegia, bi urteko haurrak zentro pribatuetan eta zentro publikoetan eskolatzeko gelak. Lurraldeak eta udalerriak aztertuz gero, eskaintza publikoa eta eskaintza pribatua oso desberdinak dira. Modu berean, lurralde eta udalerririk bakoitzean egiten den eskaera aldatu egiten da batetik bestera.

Egoera horren aurrean ezinbestekoa zen hiru urtetik beherako haurrei eskaintzen zitzaizkien hezkuntza-arreta arautzea, hartara adin horretako haurrei eskaintzen zitzaizkien



hezkuntza-arreta kalitatezkoa izango zela ziurtatzeko eta familiei laguntza eskainiko zitzaiela ziurtatzeko, eta azkenik, familia-bizitzaren eta lan-bizitzaren arteko bateragarritasuna lortzeko. Hau guztia, Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko haurren Haur Eskolak 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan arautzen dituen abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren bidez xedatu zen.

Azken Dekretu honen bigarren xedapen gehigarriak, 1. paragrafoan dio, egungo haurtzaindegi zein udal-titulartasuneko Haur Eskoletako eskaintza sendotu ahal izateko, dekretu hau indarrean sartu baino lehen haur-eskolak edota haurtzaindegiak sortu dituzten Toki Korporazioekin hezkuntzako Administrazioak hitzarmenak egingo dituela, betiere Eusko Jaurlaritzak euskal erakundeekin batera garatuko duen eskaintza publikoa zabaltzeko geroan egin daitezkeen jardueren kaltetan gabe. Bestalde, laugarren xedapen gehigarriak adierazten du, landa-zonetan edo zona isolatuetan bizi diren hiru urtetik beherako haurrei arreta eskaintzeko neurriak hartuko direla, testuinguru horretan bizi diren haurrei hezkuntza-zerbitzua eskaintzeko eta gurasoei laguntza eta arreta eskaintzeko. Xede horrekin, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin, Etxebizitza eta Gizarte Galetako Sailarekin eta Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantzaren Sailarekin koordinaturik, landa-zonetako hiru urtetik beherako haurrei laguntza- eta hezkuntza-zerbitzuak eskaintzeko baldintzak zehaztuko ditu, 2000ko martxoaren 14ko Europako Batzordearen Erabakian definituta ageri denaren arabera; guztia 1260/1999 EB Araudiko 4. Artikuluaren 9. Atalaren c) letran eta 6 atalean xedatutakoarekiko bat etorritik. Eta amaitzeko, honela dio laugarren xedapen gehigarri horrek: Eusko Jaurlaritzak Toki Erakundeekin eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuekin lankidetzaren hitzarmenak sinatu ahal ditu aipatu zonetan bizi diren 3 urtetik beherako haurrentzat laguntza-zerbitzuak eta hezkuntza-zerbitzuak sortzen laguntzeko.

VI.- Honengatik guztiarengatik, hitzarmena sinatuko duten alde bien borondatea dela Haur Eskolen kudeaketa integralaren eta hiru urtetik beherako hezkuntza- eta asistentzia-arretaren inguruan lankidetzaren aritzea, HITZARMEN honi atxikitako Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien lurralde-eremuan, beti ere ondorengoei jarraituz:

KLAUSULAK

Lehenengoa.- Helburua.-

Hitzarmen honen helburua da, haur-eskolen kudeaketa integralaren eta hiru urtetik beherako hezkuntza- eta asistentzia-arretaren inguruan, administrazio ezberdinak eta parte hartzen duten erakundeak lankidetzaren aritzea, hitzarmen honi atxikitako Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien lurralde-eremuan.

Bigarrena.- Hezkuntza- eta asistentzia-arreta.-

Hitzarmenaren izenpetzaileak, Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko haurren Haur Eskolak 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan arautzen dituen abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuak, adin horretako haur horien hezkuntza- eta asistentzia-arretarako ezartzen dituen helburuak lortzen saiatuko dira, eta baita, aipatu Dekretu horrek ezartzen dituen gainerako baldintza eta printzipioak betearazten ere.

Hirugarren.- Haurreskolak Partzuergoaren sortzea.-

1.- Helburua kudeatzeko eta lankidetzeta-hitzarmen honen xedeak erdiesteko, hitzarmenaren izenpetzaileek *Haurreskolak* izeneko partzuergoa eratu dute.

2.- Klausula honen aurreko paragrafoan adierazitakoari jarriki, *Haurreskola* arduratuko da Haur Eskolen kudeaketa integralaz eta hiru urtetik beherako haurren hezkuntza- eta asistentzia-arretaz partzuergoan esku hartzen duten, eta aldi berean lankidetzeta-hitzarmen honen partaide diren udalerrietan, udalerrri hauek euren baliabideak erabilita zerbitzu hori ere eman dezaten eragotzi gabe.

Haur Eskolen kudeaketa integrala eta hiru urtetik beherako haurren hezkuntza-eta asistentzia-arreta, *Haurreskolak* partzuergoko kide egiten diren Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietara zabaldu ahal izango da.

3.- *Haurreskolak* partzuergoaren Estatutuak horretara gaitutako gobernu-organoaren esku egongo da bakar-bakarrik udalerrri berriak *Haurreskolak* partzuergoan onartzea. Onartutako Udalak *Haurreskolak* partzuergoaren Estatutuak eta Lankidetzeta Hitzarmen honen klausulekiko atxikimendua adierazi beharko du. Horretarako, kide berriak onartzera gaitutako organoak, aldezturik, *Haurreskolak*-en Estatutuen eta Hitzarmen honen kopia igorriko dio, atxikimendua eskatzen duen Udalak horiekiko adostasuna eta onarpena azal dezan. Eskatzailearen adostasuna eta onarpena adierazita baino ezin izango du organo eskudunak kide berria onartu.

Laugarrena.- Haurreskolak Partzuergoaren Estatutuak.-

Haurreskolak Partzuergoaren Estatutuak, hitzarmenaren sinatzaileek adostu eta bateratutakoak, hitzarmen honi Eranskin gisa gehitutakoak dira.

Bosgarrena.- Instalazioak.-

1.- Partzuergoa osatzen duten udalek *Haurreskolak*-i ekartzen dizkioten instalazioak eta ekarpen horren baldintzak, Hitzarmen honen Eranskinean ezarriko dira. Dena dela, eraikin horien titulartasunak ekartzen duenarena izaten jarraituko du, eta ondorioz, berorrek mantendu, zaindu eta garbitu beharko du.

2.- Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko haurren Haur Eskolak 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan arautzen dituen abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuak ezarritako zehaztapenak bete beharko dituzte instalazioek.

Seigarrena.- Haurreskolak Partzuergoaren jarduerak eta helburuak.-

Haurreskolak Partzuergoak, Hitzarmen honen lehen eta hirugarren klausuletan ezarritako xedea eta helburu orokorrak betetzeko behar adina jarduera osagarri eta horien ondorio diren beste jarduera garatuko ditu.



Zazpigarrena.- Indarraidia.-

Honako Hitzarmen hau izango da indarrean sinatzaileek sinatu eta hurrengo egunean.

Eta alderdi biak bat datozela erakusteko, hitzarmen hau izenpetu dute, izenburuan esandako tokian eta egunean.

Sin.: Iñaki Arriola López.
EIBARKO ALKATE UDALBURUA

§

EO

HIRU URTETIK BEHERAKO HAUREN ESKOLAK ETA HAUEI ZUZENDUTAKO ASISTENTZIA- ETA HEZKUNTZA-ARRETA KUDEATZEKO HAURRESKOLAK PARTZUERGOAREN ERAKETARAKO EUSKO JAURLARITZAREN ETA EIBARKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN ERANSKINA.

Haurreskolak Partzuergoaren Estatutuetako 31. artikulua xedatzen duenaren arabera, alde sinatzaileek, Hitzarmenaren eranskin gisa, onartzen dituzte ondoko:

BALDINTZA PARTIKULARRAK


Lehenengoa.- Haur Eskolaren izena Orbea Haurreskola izango da eta Eibarren egongo da kokatuta, ondoko helbidean Bittor Sarasketa, 11 kalean.

Bigarrena.- Instalazioen titularra Eibarko Udala izango da, eta ondorioz bera arduratuko da mantendu, garbitu eta zaintzeaz.

Hirugarrena.- Haur Eskola Hezkuntzarako erabilitako zentro batean dagoenean, alde biek lagapen-hitzarmen bat sinatuko dute.

Laugarrena.- Orbea Haurreskola hartzen duten Instalazioek, ondoko elementuak izango dituzte (Proiektutik ateratako datuak):

"PARVULARIO BITTOR SARASKETA		
ESPACIO	SUPERFICIE UTIL	SUPERFICIE CONSTRUIDA
Planta semisótano		
- Almacén –conserje	12,97 M2	
SUPERFICIE TOTAL	12,97 M2	16,70 M2
Planta baja		
- Sala de usos múltiples	34,39 M2	
- Zona de higiene	9,30 M2	
- Sala de calderas	7,52 M2	
- Distribuidor entrada	40,22 M2	
- Aula 1	30,58 M2	
- Zona de higiene	8,11 M2	
- Preparación de alimentos	7,96 M2	
- Zona de descanso	19,91 M2	
- Aula 2	34,82 M2	
- Espacios comunes	18,28 M2	
- Aseo – vestuario	6,75 M2	
- Aseo visitas	4,64 M2	
- Almacén – limpieza	7,20 M2	
- Escalera	12,97 M2	
SUPERFICIE TOTAL	168,58 M2	197,00 M2



Planta primera		
- Aula 3	44,34 M2	
- Zona de higiene	8,76 M2	
- Preparación de alimentos	7,48 M2	
- Zona de descanso	22,56 M2	
- Aula 4	42,25 M2	
- Espacios comunes	15,17 M2	
- Aseo – vestuario	6,54 M2	
- Escalera	12,61 M2	
SUPERFICIE TOTAL	158,93 M2	182,32 M2
Planta segunda		
- Aula 5	30,09 M2	
- Zona de higiene	8,77 M2	
- Preparación de alimentos	8,09 M2	
- Zona de descanso	23,01 M2	
- Aula 6	33,95 M2	
- Espacios comunes	15,16 M2	
- Sala de profesores	17,49 M2	
- Secretaría	8,83 M2	
SUPERFICIE TOTAL	159,23 M2	182,29 M2
SUPERFICIE TOTAL	499,71 M2	577,61 M2

Orokorrean, 6 gela ditu, 2 gela solairu bakoitzean, eskilerak eta igogailua izanik haien artean.

Bosgarrena.- Instalazioen titularrak, Hitzarmena sinatu eta hilabeteko epean Hezkuntza Sailari Administrazio Baimena eskatzeko konpromisoa hartzen du.


Seigarrena.- Haurreskolak 6 unitate izango ditu eta ondorengo plaza-kopurua eskainiko du:

0 urte: 24 haur

1 urte: 50 haur

Oharra: Ikastetxearen distribuzioa kontuan hartuz, aukera egongo da lekuak eskaeraren arabera erabiltzeko.

Zazpigarrena.- Orbea Haurreskolaren hizkuntza-eredua D izango da.



HIRU URTETIK BEHERAKO HAURREN ESKOLAK ETA HAUEI ZUZENDUTAKO ASISTENTZIA- ETA HEZKUNTZA-ARRETA KUDEATZEKO HAURRESKOLAK PARTZUERGOAREN ERAKETARAKO EUSKO JAURLARITZAREN ETA EIBARKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN ERANSKINA.

Haurreskolak Partzuergoaren Estatutuetoako 31. artikulua xedatzen duenaren arabera, alde sinatzaileek, Hitzarmenaren eranskin gisa, onartzen dituzte ondoko:

BALDINTZA PARTIKULARRAK


Lehenengoa.- Haur Eskolaren izena AMAÑA izango da eta Eibarren egongo da kokatuta, ondoko helbidean Artegietako,6.

Bigarrena.- Instalazioen titularra Eibako Udala izango da, eta ondorioz bera arduratuko da mantendu, garbitu eta zaintzeaz.

Hirugarrena.- Haur Eskola Hezkuntzarako erabilitako zentro batean dagoenean, alde bietan lagapen-hitzarmen bat sinatuko dute.

Laugarrena.- AMAÑA Haur Eskola hartzen duten Instalazioek, ondoko elementuak izango dituzte:

- Ataria... .. 4,29m.
- Ume-kotxe aparkalekua... .. 16,41m.
- Sarrera - sartu-irtenak... .. 30,02m.
- Idazkaritza bulegoa... .. 11,65m.
- Komun orokorra... .. 2,68m.
- Aldagela-gizonezkoen komuna... .. 8,97m.
- Aldagela-emakumeen komuna... .. 10,01m.
- Aldageletarako pasilloa... .. 3,43m.
- Erabilera anitzeko gunea... .. 32,75m.
- 0-1 ikasgela... .. 32,67m.
- 0-1 biltegia... .. 4,65m.
- Lo egiteko gunea... .. 12,32m.
- 1-2 ikasgela... .. 32,68m.
- 1-2 biltegia... .. 11,51m.
- Lo egiteko gunea 1-2... .. 18,27m.
- Sukaldea... .. 8,56m.
- Aldatzeko komuna... .. 9,85m.
- Instalazioen gela... .. 4,74m.
- Arkupea (%50)... .. 0,73m.
- Estalitako jolastokia (%50)... .. 28,21m.




Bosgarrena.- Instalazioen titularrak, Hitzarmena sinatu eta hilabeteko epean Hezkuntza Sailari Administrazio Baimena eskatzeko konpromisoa hartzen du.

Seigarrena.- Haurreskolak ∞ unitate izango ditu eta ondorengo plaza-kopurua eskainiko du:

0 urte: 8 ume.

1 urte: 13 ume.

Zazpigarrena.- AMAÑA Haurreskolaren hizkuntza-eredua D izango da.



HIRU URTETIK BEHERAKO HAURREN ESKOLAK ETA HAUEI ZUZENDUTAKO ASISTENTZIA- ETA HEZKUNTZA-ARRETA KUDEATZEKO HAURRESKOLAK PARTZUERGOAREN ERAKETARAKO EUSKO JAURLARITZAREN ETA EIBARKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN ERANSKINA.

Haurreskolak Partzuergoaren Estatutuetako 31. artikulua xedatzen duenaren arabera, alde sinatzaileek, Hitzarmenaren eranskin gisa, onartzen dituzte ondoko:

BALDINTZA PARTIKULARRAK

Lehenengoa.- Haur Eskolaren izena **ARRATEKO ANDRA MARI** izango da eta Eibarren egongo da kokatuta, ondoko helbidean Jose Antonio Iturrioz,5.

Bigarrena.- Instalazioen titularra Eibarko Udala izango da, eta ondorioz bera arduratuko da mantendu, garbitu eta zaintzeaz.

Hirugarrena.- Haur Eskola Hezkuntzarako erabilitako zentro batean dagoenean, alde biek lagapen-hitzarmen bat sinatuko dute.

Laugarrena.- **ARRATEKO ANDRA MARI** Haur Eskola hartzen duten Instalazioek, ondoko elementuak izango dituzte:

- Ataria... ..5,24m.
- Ume-kotxe aparkalekua... .. 17,28m.
- Sarrera - sartu-irtenak... .. 27,88m.
- Idazkaritza bulegoa... .. 11,22m.
- Komun orokorra... .. 2,64m.
- Aldagela-gizonezkoen komuna... .. 9,36m.
- Aldagela-emakumeen komuna... .. 12,91m.
- Erabilera anitzeko gunea... .. 30,21m.
- 0-1 ikasgela... .. 32,37m.
- Lo egiteko gunea... .. 11,25m.
- 1-2 ikasgela... .. 32,37m.
- 1-2 biltegia... .. 10,96m.
- Lo egiteko gunea 1-2... .. 19,12m.
- Sukaldea... .. 8,85m.
- Aldatzeko komuna... .. 8,85m.
- Instalazioen gela... .. 6,34m.
- Estalitako-jolastokia (%50.)... .. 31,49m.

Bosgarrena.- Instalazioen titularrak, Hitzarmena sinatu eta hilabeteko epean Hezkuntza Sailari Administrazio Baimena eskatzeko konpromisoa hartzen du.

Seigarrena.- Haurreskolak BI unitate izango ditu eta ondorengo plaza-kopurua eskainiko du:

0 urte: 8 ume.



1 urte: 13 ume.

Zazpigarrena.- ARRATEKO ANDRA MARI Haurreskolaren hizkuntza-eredua D izango da.